

Donostian, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1931-ko Uztailaren 3-an.

Batzar ontan bildu diran euskaltzainak, aurreko batzarlean aipatzen diranak dira. Otoitzez asi dira.

I.—Eguskitza jaunak irakurri dizkigu bere asmodazki batzuek, bear bezelako arauz izpefi edo *neologismoak* sortzeko.

II.—Euskaltzaindiak ikusi du, joan dan urteko Schuchard-sariko batzaraldira iñor ez dala agertu. Aurtengo saritako gai bat ipiñi bear da ta erautsi bafren ondoren auxe erabaki da : Schuchard-sari gaia, aurtengo, auxe izango da : *Novela de costumbres vascas*. Lanak 200 bat orialde izan bear ditu geienez ta aurkezteko epea 1932'garen urteko Uztailaren lenbiziko egunean amaituko da.

III.—Lakonbe jaunak 14 euskalkitan esan oi dan *Aita gurearen* beñi eman digu.

IV.—Elissalde jaunak, here alderdian bildu dituen euskal-esakerak esan dizkigu.

Ta beste gairik gabe, otoitzez amaitu degu batzaraldia.

Tolosako-ko Udaletxean 1931-ko Agofaren 26-an.

Jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Olabide, Eguskitza, Intzagarai, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitzez asi da.

I.—Azkue jaunak esan digu, Ondañoako Udalak iragartzen duela, aurtengo Domingo Agiré jaunaren aomenez egin bear ziran jaiak datoñen urterako utzi dirala.

II.—Biarko batzaraldia zortzi ta erdietan asiko da, Meza nagusi ta Emeterio Añese olerkari jaunaren